

COVID 19

JARRAIBIDEAK (2022ko urtarrilak 10)

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikasturte hasieran egin zuen moduan, gabonen ostean ere, **klase presentzialen aldeko apustu irmoa egiten du**, hezkuntza-maila guztietan, **ikasle guztientzako hezkuntza integrala** eta kalitate gorenekoa bermatzeko.

Gabonetako oporren itzuleran, ikastetxe eta musika eskoletan segurtasun-berme handienarekin jokatzeko neurriak inoiz baino presentego izan behar ditugu, denon hobe beharrez.

Ikastetxeok eta musika eskolek hezkuntza-jarduera presentziala bermatzeko helburuari eutsi behar diogu.

Urte berriko lehen egunetan, segurtasun eta higiene neurriak ikasleei gogoraraziko dizkiegu, urtea hastearekin batera, horiek bete ditzaten.

HELBURUA

Musika eskolek hartu beharreko neurrien helburua hezkuntza-jarduera presentzialaren garapena bermatzea da, betiere COVID-19 hezkuntza-komunitatean ez zabaltzeko. Beraz, helburua da ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzea segurtasun eta osasun baldintzetan, bai eta eskolan lan egiten duten pertsonentzat ere.

Horretarako, Loatzo Musika Eskolak protokolo orokor honetan ezarritako jarraibideei eta osasun agintaritzak unean-unean eman ditzakeen aholkuei jarraiki, hauetara egokitu beharko du bere jarduerak.

PREBENTZIO NEURRIAK

- Helduen artean elkarrekintzetan zorrotz errespetatu behar da 1,2 metroko pertsonen arteko gutxieneko distantzia, maskara erabiltzea barne.
- Ikasleei higieneari buruzko prebentzio neurriak gogoraraziko zaizkie, gela eta adin bakoitzera egokituta, neurriak lasaitzea saihesteko.
- Ez da beharrezkoa izango temperatura hartzea lanaldiaren hasieran. Norberaren erantzunkizunari helduz, etxean bertan tenperatura hartzea gomendatuko da eskolara joan aurretik.
- Musukoaren erabilera: arau orokor gisa, nahitaez erabili beharko dute eskolako langile eta ikasle guztiek espazio guztietan eta une oro, 6 urtetik beherakoek eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek izan ezik.
- Eskuen desinfekzioa egingo da klasera sartzerakoan eta irteterakoan.
- Gelak aireztatuta daudela ziurtatuko du irakasle edo langile bakoitzak.
- Abesbatza eta talde instrumentalen gaietan aretoak edo espazio haundiko gelak erabiliko ditugu ahal den neurrian, beti ere distantzia eta aireztapena ziurtatuz.
- Ez ohiko entsaioak egin ahal izateko, espazio haundiko aretoak erabiliko ditugu (zinema, eliza, areto nagusia...)
- Ahotsa, kantuaren eta haizezko tresnen eskola praktikoetan pertsonen arteko distantzia bermatuko da.

GURASO BILERAK

Orokorrean, irakasleen eta familien bilera guztiak aurrez aurre egin ahal izango dira, betiere distantzia, higiene eta aireztapen neurriak gordez.

TRATAMENDU KONFIDENTZIALA

Eskolako irakasle eta langileek uneoro zaindu beharko dute susmagarriak edo baieztatuak diren kasuen nortasunaren eta datuen tratamendu konfidentziala.

Ikasleen eta langileen txertaketa datuak ere mediku sekretupean zainduko dira.